



1. Unitatea - Kilo bat istorio

## INFORMAZIO OSAGARRIA

### 1. XEHETASUN HISTORIKOAK

#### 1.1. ORDIZIAREN BILAKAERA: ORDICIA IZATETIK ORDIZIA IZATERA

Toki guztiek izaten dute izen bat, toponimo bat, eta horren bitartez bereiztu ahal izaten dugu beste batzuetatik. Ordizia gaur egun, udalerrri jakin bat eta ez beste bat identifikatzeko erabiltzen dugun toponimoa da eta izen horren atzean badago historia bat, bertako bizilagunek bizi izandako gertaera historikoen aztarna.

Badakigu Ordizia ez dela herriak izan duen izen bakarra. Denboran zehar, hirigune horren izena aldatuz joan da, bertako bizilagunek tokiarekin izan duten erlazioaren arabera: *Ordicia*, *Villafranca*, *Villafranca de Oria*, *Villafranca de Ordizia* eta *Ordizia* historian zehar Ordiziako herrian izan diren aldaketa sozialei dagozkien bost izendapenak dira.

Izendapena	Datak	Zergatia
Ordicia	1268 aurretik	<b>Antzinako toponimoa.</b> Izen hori zuen San Bartolome inguruan eraturako herrixkak. Handik joan zen zabaltzen.
Villafranca	1268tik 1916ra	Gaztelako errege <b>Alfontso X.ak hiri gutunean Ordiciari eman zion izena.</b>
Villafranca de Oria	1916tik 1970era	Homonimoetatik (izen bereko beste udalerrri batzuetatik) bereizteko osatutako izen konposatua, <b>ibaiaren izenean oinarritua.</b>
Villafranca de Ordizia	1970etik 1982ra	Homonimoetatik bereizteko osatutako izen konposatua, <b>herriko historian oinarritua.</b>
Ordizia	1982az geroztik	<b>Jatorrizko toponimia berreskuratzeko</b> asmoz.

#### ORDIZIA (ORDICIA) 1268 URTE AURRETIK

Goierri, Historiaurreko aztarna zaharrenak Joxe Migel Barandiaranek aurkitu zituen Ataungo Usategi haitzuloan. Erromatar garaiko aztarnak gutxi ditugu, Goierri erromatar eta arabiarren inbasioetatik salbu gelditu zelako. Baina, Erdi Aroko aztarnak badira: Ordizian bertan dorre eta harresi zatiak gorde dira ezkutuan. Gainera, garaiko gertaeren inguruko idatziek eta kontakizunek ere informazioa ematen digute. Horiek



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

guztiek laguntzen digute atzera egiten eta orduko Ordizia nolakoa zen eta ordiziarrak nola bizi ziren ondorio batzuk ateratzen, nahiz eta galdera eta zalantza asko gelditzen diren airean.

Ordizia herria nola sortu zen ulertzeko, San Bartolome ermitan eta Buztuntzako parajeetan kokatu behar dugu. Gure arbasoak ibaien ertzetan edo mendi maldetan hasi ziren herrixkak osatzen, gehienetan baseliza bat erdian zela, eta itxura guztien arabera San Bartolomeren inguruan eratu zen gurea. 1268an Gaztelako erregeak Villafranca izeneko hiribildua sortzeko idatzia sinatu zuenean, idatziak berak esaten zuen ORDICIA izeneko herrixka bat bazela aurretik han. Gutun hori da Ordizia herriari buruz dagoen dokumentazio zaharrena.

Ezagutzen den lehen izena, beraz, ORDICIA da. Serapio Mujika, Carmelo Etxegarai eta beste zenbait historialarik idatzi dute San Bartolome ermitaren inguruan bildutako herri bat bazela antzinatik, Ordicia izenekoa. Izen deskribatzailea zela uste da, tokiaren ezaugarriak adierazten dituena. Martin Mendizabalek egin zuen azterketaren arabera, espazio baten erdian bizi den herri bat izendatzen du, leku mugatu baten erdiko jabetza, eta jatorrizko izena Herdizia de San Bartolome zen (haren arabera, hiri-gutunean kopiatzailearen akatsa dela eta gaizki idatzi zen, baina hipotesi bat baino ez da). San Bartolome ermitaren garrantzia adierazten duten idatziak oso antzinakoak dira. XI. mendeko Gipuzkoako gizarte antolaketari begiratuta, Oria ibaiaren bazter bietan hainbat etxe zeudela uste da, eta une jakin batean elkarrekin eliza bat eraiki eta baserri giroko herri bat osatzea erabaki zen, harreman sozialak eta elkartrukea errazteko.

Baina, erabaki garrantzitsuak hartzeko ere biltzen hasi ziren Ordizian inguruko biztanleak. Gaur egun Buztuntza deitzen diogun auzoan batzarrak egiten ziren, Aralar eta Enirio mendietan artzantza antolatzeko. Artzantza izan baita urte askotan gure arbasoen bizimodua eta lanbidea, eta larreak banatzea oso garrantzitsua zen garai hartan. Bozue deitzen zitzaion Aralar eta Enirio larre mendiari eta hura erabiltzeko eskubidea zuen elkarteari; Bozue Handi eta Bozue Txiki osatu zituzten eta Bozue Txikiren batzarra Ordizian, Bozuntza izeneko baserri baten ondoan biltzen zen, intxaurrondo baten inguruan. Haren izena hartu zuen gero auzoak, nahiz eta denboraren poderioz Buztuntza izenarekin gelditu den. Batzar horiek izan ziren Aralarko Mankomunitatearen sehaska.

Bozue elkartearen berri ematen digun idatzi zaharrena 1027koa da, Nafarroako Antso Handia III.aren agiri bat da. Iruñeko Elizbarrutiko mugak edo lurraldeak adierazten ditu eta Gipuzkoako hainbat bailara aipatzen dira, tartean Ozkue, Bozueren jatorrizko izena. Pixkanaka herriak sortzen joan ziren, eta Ordiziarentzat garrantzitsua izan zen Bozueren kokapena eta San Bartolomeren inguruan sortu zen hartu-eman komertziala.



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

Ibaien inguruan ere mugimendu handia izaten zen garai hartan, arrantza egin zitekeelako eta garriobide izan zitekeelako.

### ORDIZIA 1268 GEROZTIK (VILAFRANCA). HIRIBILDU ITXURAREKIN

Gaztelako Alfonso X.a Jakintsuak hiribildua sortzeko baimen edo eskubide berezia eman zion Ordiziari 1268ko ekainaren 30ean, Sevillan sinatutako gutun baten bidez. Villafranca izena jartzea agindu zuen. Nafarroarekiko muga hiribilduak sortzeko plangintza orokor bati jarraitu zion Alfonso X.ak, eta Ordiziakoaren modu berean sortu ziren Tolosakoa eta Segurakoa, besteak beste. Hiribildu horiei tratamendu juridiko berezia eman zieten, forudun hiri bihurtu baitziren.

XII. eta XIII. mendeetan hasi ziren Gipuzkoan zehar hiribilduak sortzen. 1200. urtean konkistatu zuen Gaztelak Gipuzkoa, Nafarroaren esku zeuden Gipuzkoako gaztelu gehienak bere menpe hartuz eta barrualdea itsasoarekin lotzen zuen merkatal bidea kontrolatuz. Ordurako Nafarroa hasia zen lehen hiribilduak sortzen, itsasaldean bereziki, baina konkistarekin batera Gaztelak indarrez ekin zion egiteko horri. Lehenengo itsasbaterreko hiribilduak sortu ziren: Donostia, Hondarribia, Getaria... Geroago 1256 eta 1268 bitartean beste hiribildu andana sortu zituzten: Segura, Tolosa, Villafranca, Bergara eta Arrasate. Gaztelako erregeek hiribilduak leku estrategikoetan sortu zituzten helburu hauekin:

- ✗ Merkataritza kontrolatu (itsasorako sarrera eta irteera eta Akitaniarako bidea), eta baita ere gure ondasunak.

- ✗ Bide berriak lortu Espainiako Erresumatik itsasora irteteko.

- ✗ Interes militarrik. Gaztelak Nafarroako Erresumarekin hasi zuen borroka eta liskarrak direla eta defentsa sendotu nahi zuen Gipuzkoako eta Nafarroaren arteko muga eta Villafranca sortzea izugarri komeni zitzaion Nafarroatik gertu egoteaz gainera, bide garrantzitsuan kokatua zegoelako (gure inguruko mendietatik ateratako material eta produktuak kostaldera eramateko merkatal bide bat sortua zegoen jada). Kontutan izan behar da, bestalde, Villafranca, baita Segura ere, muino baten gainean zeudela. Kokaleku horrek seguruago bihurtzen zuen lekua. Oria ibaia baino gorago zegoenez, biztanleak uholdeetatik libre zeuden. Beste alde batetik, ibaia berezko defentsa zen eta erasoetatik babesten zituen herritarrak.

Gipuzkoako hiribildu gehienek erregeak emandako hiri-gutuna dute, eta Ordiziak oraindik gordetzen du berea. Hiri-gutun horrek eskubide batzuk ematen zizkien hiribilduko biztanleei:

- ✗ Soldaduskara ez joatea: horrela hiribilduan bertan geratzen ziren, berau defendatzen.

- ✗ Azokak egiteko eskubidea.

- ✗ Kontzejuak (gaur egungo udala) osatzeko eskubidea.



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

**Zubiek** gure herrian izan duten garrantzia ere adierazgarria da; izan ere zubiak funtsezkoak ziren komunikabideen egonkortasunerako eta hiribilduko eta inguruko bazterren osagarri bihurtu ziren. Bi zubi nagusi: Lazkaibarkoa, Lazkao eta Ataunekin lotzen zuen Villafranca eta Alkartekoa, Zaldibiarako bidean. Zubi horiek hasieran egurrezkoak ziren, baina uholdeen eragin hondagarria jasaten zuten noizean behin, harriz berreraiki zituzten eta garrantzia irabazi zuten igarobide gisa.

ORDIZIA XIX MENDE BUKAERAN ETA XX. MENDE HASIERAN (Villafranca de Oria, geroxeago Villafranca de Ordizia): errepidea, trena, industria, auzoak... sortzen hasi zirenekoa

XIX. mendetik aurrera Villafrancak aldaketa sozial garrantzitsua izan zuen. Prozesu horren ondorioak nabarmenak dira giza harremanetan, naturan eta espazio fisikoan. Bigarren gerra karlistatik aurrera, Villafranca bizkor modernizatu zen, Gipuzkoa osoa bezala. Industrializazioa izan zen berrikuntza prozesu horren faktore bultzatzailea.

XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran honako fabrikak zituen: likore fabrika bat, eskoletarako arbel fabrika bat, lau altzari fabrika, irin errota bat, xaboia egiteko fabrika bat, gaseosa fabrika bat... urte gutxi batzuk geroago ehun fabrikek ere gora egin zuten.

Industria horiek guztiak ezingo ziren garatu lurreko komunikabideak hobetu gabe. Villafrancak komunikabide sare ona eduki beharra zeukan, lehengaiak erraz ekartzeko eta produktu elaboratuak ere erraz ateratzeko; azken finean, bere jarduera ekonomikoa indartzeko.

Beraz, errepideak aldatzen joan ziren premia berrietara egokitzeko. XX. mendearen hasieran hasi ziren lehenengo gurdi eta zaldiak eta auto motordunak Gipuzkoako errepideetan. Villafranca Madril eta Irun lotzen zituen errepide nagusiaren ondoan zegoen eta bertatik pasatzen ziren autoak. Horregatik, lehen gasolina hornitegia sortu zen 1924an, Urdaneta kalean.

Errepideen garapenarekin batera, trenbidea agertu zen. 1868an onartu zioten Villafrancari geltokia egitea eta egunero gelditzen zen linea horretan zebilen trena. Geltoki berria 1900ean ireki zen. Era horretan, Villafranca ederki integratuta gelditu zen lurraldeko merkataritza eta harreman zirkuitu nagusietan.

Gerra karlistak bukatutakoan, Erdi Arotik zeuden ateak eta harresiak bota zituzten. Hiribildua lau aldeetara hazi zen eta aldaketa batzuk gertatu ziren:

**X** Plaza Nagusia handitu egin zen eta 1925ean estali egin zen, asteazkenoroko azoka babesteko.



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

- X Beste eremu batzuk sortu ziren: Garagartza plaza eta Arboleda
- X Iturri berriak egin ziren
- X Argiteria publikoa ezarri zen.
- X Ubideak ireki zituzten.
- X Kaleetako zorua konpondu zen eta espaloiak egin zituzten Urdaneta eta Filipina kaleetan hasita.
- X Auzo berriak sortu ziren: Aita Urdaneta 1950ean...
- X Zenbait urte geroago 60. hamarkadan, hirigintza *boom bat* izan zen eta Buztuntza, Otegineta eta Altamira auzoak sortu ziren.

### 1.2. HIRIBILDUAREN ITXURA

Harresi batez inguratutako zegoen almendra itxurako gunea zen hiribildua. Harresiak lau ate zituen eta gutxienez horietako biren ondoan hiribildua babesteko eraikin bana zegoen. Horrek guztiak segurtasun eta sendotasun itxura emango zion hiri barrutiari. Hiru eraikin noble zeuden gutxienez: Unanue etxea –Barrentxiki- (gaur egun D’elikatzu Interpretazio Zentroa dagoen tokian). Frantziako atearen ondoan; Muxika dorretxea, Gaztelako atearen inguruan eta Lazkaibar-Balda jauregia (egun desagertua) Garagartzako atearen ondoan. Hirurak familia boteretsuenak ziren. Familia horiek postu handiak eduki zituzten hiribilduaren administrazioan. Beste dorretxe batzuk beranduxeago sortu ziren: Zabala, Ibarbia, Barrena.

Hiribilduaren barrua egurrezko etxe arruntez beteta zegoen. Etxe horiek asmo handiegirik gabe zeuden eraikita, bata bestearen ondoan; guztiek antzeko azalera edukiko zuten eta bertan bizi ziren herritar gehienak. Santa Maria eliza ere harresiaren barruan zegoen, aipatutako guztiekin batera eta hortxe bildu ohi zen jendea; baita udalbatzeko kideak ere, XVI. mendean lehen udaletxea eta plaza nagusia egin ziren arte.

Sorrerako Ordizia horretatik zenbait gauza gorde ditugu eta horregatik da preziatua gure herria eta jende asko etortzen da kanpotik bisitan: hiribilduaren itxura eta erdiko hiru kaleak bere horretan mantendu dira, elizako dorre nagusia garai batean gaztelu baten dorre begiralea zen. Beste gauza batzuk, berriz, erabat galdu dira: herria inguratzen zuen harresia eta hura ixten zuten lau ateak, esaterako.

**Hiru kale nagusi zituen:**

- X Erdiko kalea: egungo Kale Nagusia
- X Goiko kalea: egungo Goenkale
- X Barrenkale edo Elizkale: egungo Santa Maria kalea



1. Unitatea - Kilo bat istorio

... **Eta lau ate nagusi:**

**X** Ekialdean, Frantziako atea. Ate nagusia zen, Barrena eta Jakes jauregien artean kokatuta.

**X** Mendebaldean, Gaztelako atea. Kale nagusiaren mendebaldeko muturrean zegoen.

**X** Hegoaldean, Bakardade edo Erreteneko atea. San Pedro kalearen behealdean, elizako dorrearen ondoan; hau da, tren geltokiko eskaileretatik gora.

**X** Iparraldean, Garagartzako atea. Gazteluzar jauregiaren alboan zegoen, gaur egun dugun plazaren goialdean.

### 1.3. OINETXE ETA JAUREGIAK

XIII. mendean hiribildua eratzeko pribilegio edo eskubidea jaso zuen orduan herrixka txikia zen Ordizia. Espainiako Alfontso X.ak eman zion, eta Villafranca izena jarri zion. Erdi Aroan ohikoa zen itxurarekin eratu zen: perimetro obalatu edo almendra itxurarekin. Itxura hori gordetzen du gaur egun ere Ordiziako alde zaharrak. Kaleen egitura ere gorde da, baina ez, ordea, antzinako etxe haiek. Erdi Aroko herriaren eraketak aldaketa nagusi hauek izan ditu: plaza zabaltzea, udala eraikitzea, elizaren berreraikitzea eta harresiaren inguruan zegoen bidearen egokitzea.

Jatorrizko harresiaren aztarnik ez da gorde; bai gerora berritu zen harresiaren zatiren bat eta dorre begiralearen horma, gaur egun elizako dorrean ikus daitekeena. Andra Mari eliza eraiki zenean (XIV. mendearen hasieran) aurretik hiribilduarekin batera altxatu zen dorre begiralean oinarritu zela uste da. 1969. urtean berrikuntza lanak egin ziren, eta orduan ikusi zen dorrea eliza barruan sartuta dagoela. Litekeena da dorre zati hori izatea Ordiziako aztarnarik zaharrena.

Erdi Aroan hiru oinetxe garrantzitsu zeuden herrian: Lazkaibar Balda (egun plaza dagoen lekuan gaztelu itxurakoa omen zen), Muxika Dorretxea (egun postetxea dago bertan) eta Gazteluzahar jauregia (Ibarbia etxea izan dena). Azken bi eraikin horiek erabat aldatu dira, baina orduko leku berean daude. Bestalde, Aro Modernoan sartzean eraiki ziren hainbat jauregi gorde dira: Barrena, Zabala, Jakes etxea, Abaria jauregia, Sujetoenea... **Zabale baserria** ere aipagarria da; herrigunetik kanpo dago baina Zabale jauregiari lotutako eraikina zen, mudejar estilokoa eta lau aldeko dorrearekin.

**Muxika Dorretxea:** Gaztelako atetik hurbil, hiribilduko etxe nagusi modura agertzen zen. Eta haren garrantzia ere handia izan zen: Muxikarrek eragin handia izan zuten herrian, eta dorretxean egiten zituen udalak bilerak 1511. urtera arte. Oraindik armarría bertan dauka.



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

**Gazteluzahar Jauregia:** Garagartzako atearen ondoan, barruti harresituan leku estrategikoa izan zuen eta gerra kroniketan askotan aipatzen da. Erabat suntsitu zen sute batean, eta gero Ibarbia jauregia eraiki zen. Jauregi horrek angeluan egindako balkoia zuen, eta egungo etxea erabat berritua bada ere, balkoi hori eta armarrria gorde ditu.

**Zabala Jauregia:** XV. mendearen amaieran eta XVI. mendearen hasieran eraiki zen Domingo de Zabalak aginduta. Erregearen kontulari nagusia izan zen Zabala eta Lepantoko batailan parte hartu zuen turkiarren kontra, lau galeretako kapitain zela. Berpizkunde garaiko hondare izanik ere, baditu Erdi Aroko zenbait xehetasun. Etxearen elementurik erakargarriena arku baikoitzeko balkoia da, eta gainean dagoen armari ederra. Hau da armariaren deskripzioa: lau zati ditu eta lehenengoan eta laugarrenean hegalaldian hastear dagoen arranoa ageri da, hegoak zabalik; bigarrenean eta hirugarrenean, arte berdeak eta bakoitzaren azpian basurde beltz bana.

Hainbat jauntxo jaio ziren etxe horretan eta Espainiako erregearen familiako askok hartu zuten ostatu bertan. Baita Felipe III.a erregeak berak ere 1615eko azaroaren 2an. Frantziako Luis XVI.aren anaia Artoisko kontea ere bertan izan zen 1782ko uztailaren 15ean. XVIII. mendean ia osorik berritu zen.

**Barrena Jauregia:** XVII. mendearen hasierako jauregi barrokoa da, eta herriko etxerik garrantzitsuenetakoa. Zabala jauregia bezala, garai hartan Amerikatik ekarritako diruarekin egin zela uste da. Gaur egun kultur etxea da. Beheko etxea esan nahi du Barrenak, halaxe kokatua baitzegoen. Garai batean Jakes etxearekin tunel baten bidez lotua zegoen eta hala egon zen azken karlistada arte. Barrena jauregiak antzinako izaera gorde du eta zatirik erakargarrienak harlanduz egindako eskailera nagusia eta lehenengo solairuko areto ederrak dira. Juan de Herrera arkitekto espainarrak diseinatu zituen ataurrea, lursailak eta hegoaldeko fatxadaren oinetan dagoen baso txikia. Gipuzkoako Batzar Nagusiek hainbat bilkura egin zituzten Barrena jauregian.

Ondoan dagoen **Barretxeren** etxe arkitekturaren hondarrak XIV-XV. mendekoak dira. Erdi Aroko aztarna gehien gorde dituen etxea da. Harresiari lotutako dorrea zen, eta orduko harresi zatia gordetzen da barruan. Defentsa lanetarako sortu zen, horregatik pareta sendoak ditu eta lehioak estuak, gero zabaltzen doazenak, kanpotik zaila izan dezaten erasotzea. Aurrealdea kuxinduraz apaindua dago. Barrena eraiki zenean, haren guarda etxe modura erabili zen. Barrena eta Barrenetxe momumentu historiko izendatu ditu Eusko Jaurlaritzak.

**Abaria edo Abarienea Jauregia:** XVII. mendeko etxe barrokoa plaza nagusiko kantoian dago. Armarrria du. Abaria familiako pertsonaia ezagunena Francisco de Abaria izan zen, Espainiako Armadako kapitaina, Sevillako sei itsasontzi onenak bere agindupean



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

zituena. Etxe horretan hartu zuen ostatu Carlos V.ak 1875eko ekainaren 6an, Gipuzkoako Foruak zin egitera etorri zenean.

**Sujetoenea:** Postetxea izan zen eta 1800. urtetik aurrera zalgurdiak hedatu zirenean, Madril-Irun bidean geltoki izan zen. 1738. urtean sute batek suntsitu zuen eta XVIII. mendean berritu zuen Nevanesko markesak. Kanpoaldean ikus daitezkeen margo neoklasikoak oso bitxiak dira (printze bat ehizean ageri da, hegazti bat, lorategi bat, hiribildu bat...).

**Udaletxea:** 1830-1832 inguruan egindakoa da, lehen zegoenaren hondarren gainean. Proiektu originala Alejo Mirandakorena zen, eta Pedro Manuel Ugartemendiak zenbait aldaketa egin zizkion. Beheko solairuan arkupeak daude, baina fatxadaren estiloa. oro har, greko-erromatarra dela esan izan da.

### 1.4. AZOKAREN SORREREN ARRAZOIA

Villafrancak ere ez zion ihes egin garai hartako etsai nagusienetako bati, hau da, suari. 1512ko martxoaren 18an sute hondagarri bat izan zen hiribilduan eta harresi barruko ia etxe guztiak erre zituen. Ez dakigu zerk eragin zuen hondamendia, baina urte bereko apirileko Batzar Nagusietan aipatu zenez, hiribildua hauts bihurtuta gelditu zen eta herritarren ondasun guztiak galdu ziren. Sute hark ondorio larriak izan zituen. Etxeen hondamenak eta herritarren ondasunen galerak biztanleen ihesa ekar zezakeen; hots, Villafranca hondatuta eta hutsik gera zitekeen. Horregatik, laguntza erregutu zitzaion Gipuzkoako Ermandadeari; esan zitzaion harria, karea eta igeltsua bezalako gaiak behar zirela hiribildua berreraikitzeko.

Batzar Nagusiek, 1512ko apirilaren 28an egindako batzarrean eta Juan Martinez de Muxica eta Martin Garcia de Isasaga Villafrancako batzarkideek eskatuta, diru laguntza eman zuten hamar urterako hiribildua berreraikitzeko eta konpontzeko. Koroatik etorri zen bigarren laguntza. Era horretako hondamendi batek hiribildu bat suntsitzen zuenean, Gaztelako erregeek pribilegio eta eskubide batzuk eman ohi zieten kaltetutako herritarrei, hiribildua hustu ez zedin.

Sutetik bi hilabetera, 1512ko maiatzaren 15ean, Joana II.a erreginak asteazkeneroko azoka franko bat, hau da, zergarik gabea, egiteko pribilegioa eman zion hiribilduari. Pribilegio horri esker Villafrancako heritarrek era guztietako merkantziak eta ondasun higigarriak saldu edo trukatu zitzaizkien harresiaren barruan, egunsentetik ilundu arte. 1512tik aurrera, Villafrancak bere itxura aldatu zuen. Eraikin berriak eraiki ziren. Espazioa ulertzeko era berriekin zeuden lotuta horiek eta herritarren multzo handi baten nahiekin ere bai. Herritar horiek gero eta indar handiagoa zeukaten hiribilduko erabakietan. Hiri oligarkia berria ziren.





## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

Villafrancako asteroko merkatuan nekazaritzako soberakinak eta beste toki batzuetako produktuak egoten ziren salgai: haragia, olio, ardoa, arraina, gatza, egurra, oihalak, ikatza, eraikuntzako materialak... Adierazi bezala ez zen zergarik ordaindu behar, baina udal agintariek zorrotz behatzen zuten guztia: salgaien egoera gainbegiratzeaz gain, pisuak eta neurriak zuzen ala oker erabiltzen ziren egiaztatzen zuten.



1. Unitatea - Kilo bat istorio

## 2. ERDI AROKO BIZIMODUA

### 2.1. Etxeak

Hasieran bi solairuakoak ziren. Harriz eta egurrez eginak eta bata bestearen ondoan erantsita. Beheko solairuan ikuilua egoten zen animalientzat eta lehenengoan, berriz, bizitokia. Animalien berotasuna: behiena, ardiena, zaldiena... goiko solairura zabaltzen zen. Atzeko aldean, berriz, ia etxe guztiek baratza zuten. Leihoak oso txikiak izaten ziren, horman egindako zulo batzuk. Handik sartzen zen etxera barrua argitzeko argia. Estali gabe zeuden eta hotza egiten zuen egunetan argizaritan bustitako oihalak jartzen zituzten. Egoera horregatik etxe barrua ia beti ilun egoten zen eta jendeak kriseiluak erabiltzen zituen. Kriseiluak erregairen bat behar izaten zuten eta arriskutsuak ziren suteak sortzen zituztelako.

### 2.2. Lanbideak

Jende gehiena nekazaria zen eta lurretik bizi zen. Lur horiek hiribildutik kanpo zeuden eta bertan landatutako produktuekin elikatzen zen hiribilduko jendea.

Beraz, baratzea, basoa eta ibaia hiru iturri garrantzitsu ziren premiazko elikagaiak lortzeko. Oria ibaian ere arrantzale ugari ikus zitezkeen.

Merkatariak ere ezinbestekoak ziren garai hartan; izan ere, hiribilduak ez zituen jakiak ekartzen zituzten beste leku batzuetatik: ardoa, zerealak, garia, garragarra, artatxikia, zekalea, oinetakoak, jantziak, ontziak, nekazaritza tresnak... Hiribildua garatuz joan zen eta lanbide berri asko sortu ziren beharrezkoak baitziren zenbait produktu biltzeko, banatzeko, egiteko eta saltzeko. Lanbide hauek hirigunea osatzen zuten eta kaleetan ikus zitezkeen. Horrela, sal-erosketarako guneak sortu ziren.

### 2.3. Janaria

Baratzea, basoa eta ibaia hiru iturri garrantzitsu ziren premiarik handienetako elikagaiak eskuratzeko. Nahiz eta Villafrancak hiri izaera eduki, landa munduko jardueren premia zeukan bertan bizirauteko. Bestalde, familia ugari baratsetxo bat edukitzen zuen etxearen atzealdean. Bertan barazkiak eta lekaleak landatzen zituzten. Baratze hauez gainera, Villafrancak bazituen beste lursail batzuk nekazaritzarako harresitik kanpo: Alfoza izenekoak. Lur horiek janaria ez ezik, egurra eta ura ere eskaintzen zizkien hiribilduko bizlanleei.

Lur horietan zereala ere hazten zen eta Erdi Aroko janari nagusienetako bat egiten zuten berarekin: **ogia**. Ogia erre aurretik, zereala (garia, artatxikia edo zekalea) eho behar zen lehenik, eta horrela irina eskuraten zen. Villafrancak bazuen gutxienez errota bat garai horretan. Harresitik kanpo zegoen, Lazkaibar izeneko zubitik hurbil,



## 1. Unitatea - Kilo bat istorio

Errota Zahar izenez ezaguna. Errota hiribilduko biztanle guztiek erabil zezaketen zerga baten truke. Zerga hori errotariak kobratzen zuen eta gero kontzejuari eman behar izaten zion. Irina egindakoa, familia bakoitzak bere ogia egiten zuen etxeko labeetan edo hiribilduak zeuzkan herri labeetan. Ogia erretzerakoan tenperatura handiak izaten zirenez etxeetan eta etxeak egurrezkoak zirenez eta suteak izateko arriskua zegoenez, azkenean labeak harresitik kanpo egitea erabaki zen.

Fruitu arbolak ere landatzen zituzten; gaztainondoak eta sagarrondoak batez ere. Bildutako sagarrarekin, orduko edaririk hedatuena egiten zuten: **sagardoa**. Hiribildu barruko dolareetan egiten zuten hori, seguru asko, eta gero saldu. XVI. mendean euskaldunek itsas gizonen artean ospe handia zuten; besteak beste, edari berdearen (sagardoa) egileak zirelako. Sagardoa edateko ez ezik, itsasontzietako bodegetako kupelak betetzeko (horrela itsasontziak sakontasun handigoa hartzen zuen) zen oso preziatua. Urdaneta ibili zen itsasontzietan ere ez zen, ziurrenik, sagardorik faltako.

**Oria ibaia** ere janari iturri garrantzitsua zen. Ibaiak arrain mota ugari eskaintzen zizkien Villafrancako biztanleei: izokinak, amuarrainak, aingirak... Ihiz egindako otarrekin harrapatzen zituzten arrainak, ibaiaren zabalera osoan ipintzen ziren. Soroetako, basoetako eta ibaiko produktuak eskuratu eta gero biztanleen artean banatu behar ziren, behar zuten guztia eduki zezaten.

Horretarako baziren Villafrancan **produktuak saltzeko gune** batzuk; gaur egun bezala, azoka eta etxabeetan kokatutako saltokiak ziren gune horiek. Etxe horietako batzuk familiaren bizileku ziren, eta saltoki eta lantoki ere bai. Jakiak ez ezik, bestelako produktuak ere saltzen ziren bertan: oinetakoak, jantziak, ontziak, aiztoak, nekazaritza tresnak, altzari txikiak... Baziren tabernak ere. Edariak saltzen ziutzen, sagardoa eta ardoa batik bat.



1. Unitatea - Kilo bat istorio

### 3. PERTSONA ESANGURATSUEN BIOGRAFIA

#### 3.1. Domingo Unanue:

Ordizian jaio nintzen 1901ean. Madrilen eta Parisen egin nituen ikasketak. Ordiziako Herri Antzokia, San Joan auzoko eta Aita Urdaneta auzoko etxebizitzak eraiki nituen.

#### 3.2. Nicolas Lekuona:

Ni ere Ordizian jaio nintzen eta nire lehen ikasketak Beasainen egin nituen. Baina gerora, nik nahi nuena ikasteko Madrilera joan behar izan nuen. Bertan, artista asko ezagutu nituen, horien artean Jorge Oteiza aipatuko nuke. Marrazkiak egitea eta argazkiak ateratzea izugarri maite nuen eta nire lanekin zenbait erakustea ere egin nituen: Donostian, Ordizian... Nire familiak 700 bat lan ditu gorderik. Lan horiekin oraindik ere erakusketak egiten dituzte han-hemenka. 24 urte besterik ez nituela hil nintzen Gerra Zibilean.

#### 3.3. Aita Barandiaran:

Berez ez nintzen Ordizian jaio baina bai Goierriko herri batean, Ataunen hain zuzen. Oso osasun oneko pertsona izan naiz eta zahartuta hil nintzen; 101 urterekin. Oso ezaguna izan naiz Euskal Herri osoan nire ikerketa lanengatik. Besteak beste, Aralar mendiko trikuharriak, Santimamiñeko kobazuluak esploratu nituen. Euskal mitologian ere aditua izan naiz eta asko idatzi dut gai horren inguruan: Mari, Jentilak, Lamiak ondo baino hobeto ezagutu ditut. Zuk ere ezagutu nahi al dituzu?

#### 3.4. Domingo Goitia:

Ezaguna naiz trenak egiten dituzten lantegiko sortzaileetako bat izan nintzelako. Hori 1860an gertatu zen. Herriko hilerriaren proiektua ere egin nuen, baina proiektu hori ez nuen nik gauzatu nire seme Franciscok baizik.

#### 3.5. Victor Mendizabal:

Ordizian jaio nintzen baina oso gazterik Argentinara joan nintzen. Nire kezka nagusia umeek ikasteko aukera edukitzea izan da beti. Hori dela eta ikastetxeak eraikitzen lagundu dut batik bat Amerika aldean. Buenos Aireseko euskal etxea sortzen ere



1. Unitatea - Kilo bat istorio

lagundu nuen. Zuek bai zortea! Denetik daukazue eta ikasteko ere izugarrizko aukerak dituzue. Aprobetxatu ondo!



1. Unitatea - Kilo bat istorio

## 4. LAZKAO TXIKIREN ETA PERNANDO AMEZKETARRAREN PASADIZOAK

### 4.1. Lazkao Txikiren ateraldiak

1. Behin, hala galdetu omen zion batek:

- Zu Joxe Miel, non jaio zinen?
- Ni, Lazkaon.
- Eta hazi?
- Hazi, inon ere ez. Bistakoa da ezta?

2. Beste behin, honela galdetu zioten:

- Zuek zenbat senide zarete?
- Gu zazpi: hiru arreba eta lau anai
- Eta bizi?
- Biziii, baaa ni bakarrik.
- Eta besteaak?
- Ez, besteek lana egiten dute.

3. Asteazken batean, azokan Lazkao Txikik gereziak saltzen ari zen emakume bati hala esan omen zion:

- Ño, gerezi ederrak dituzu eh!!
- Bai, hala dira ba – erantzun zion emakumeak.

Lazkao Txikik bat hartu eta probatzen hasi zen. Baina, berarekin zihoazenek ere hartu eta jan. Eta emakumeak haserre:

- Aizue, hauek jatezkeotan eosita, eh!!

Eta Lazkao Txikik:

- Eositaaa??? Gordinik ere eder askoak daude hauek!!!

4. Beste batean, taberna batean sartu omen zen mokadutxoren bat egiteko asmoz eta bokadilo bat eskatu zuen. Tabernako etxeakoandreak galdetu omen zion:

- Zerena nahi dezu: xerrana, tortillana edo zer?
- Jarriazu tortillana
- Frantsesa ala espãñola?



1. Unitatea - Kilo bat istorio

- Berdin zait, hitz egiteko ez det behar eta!!!

#### 4.2. Pernando Amezketarraren ateraldia

Behin, Pernando bi astoren jabe egin zen, eta a zer nolako astoak, gainera! Biak itsuak, alajaina! Haietxek ikuiluan edukitzea alferrikakoa zela eta saltzea erabaki zuen. Baina nork erosiko zizkion halako bi pieza? Zerbait bururatu zitzaion, ordea, gure Pernandori eta bi astoak ondo garbitu eta apaindu ondoren perira joatea erabaki zuen.

Sokatik lotu eta eguna argitzeko eraman zituen bi asto itsuak perira. Pixkanaka-pixkanaka jendea hurbiltzen hasi zitzaion Pernandori galdezka:

- Saltzeko al dauzkazu bi asto horiek?
- Bai jauna, halaxe dauzkat. Eta merke gainera. Izan ere, tokirik ez daukat ikuiluan eta traba besterik ez didate egiten.
- Ez dute itxura txarrik Pernando!
- Itxura txarra?? Ez, ez, sasoi ederrean daude eta jan eta lo besterik ez dute egiten. Niri ere pena ematen dit saltzea baino....
- Eta ez al dute inolako akatsik? Zerbait izango dute.
- Hauek akatsik? Ez, ez. Lasai gizona. Beno, egia esan behar badut, akats txiki-txiki bat badute, bai.
- Eta zein da ba akats hori Pernando?
- Ba elkar ezin dutela ikusi. Horixe besterik ez. Badakizu, egunero elkarrekin ikuiluan eta .....
- Hori besterik ez bada,... Erosi egingo dizkizut!! Aparte jarriko ditut ikuiluan eta kitto.

Tratua egin eta Pernandok dirua poltsikoan sartu orduko tximista baino azkarrago aldegin zuen Amezketara aldera. Astoak, ordea, bidean abiatu orduko, hor hasi dira bazter guztiak jotzen: batek zuhaitza jo, besteak pareta.... Ezin pausorik eman kopetarekin zerbait jo gabe!

Baserritar erostuna oso haserre zegoen Pernandorekin eta hurrena ikusi zuenean hala esan zion:

- Aizu, Pernando, dirua itzuli behar didazu. Engainatu egin ninduzun. Zure astoak itsuak dira.
- Nola engainatu? Nik garbi esan nizun, ezin zutela elkar ikusi eta zuk hala ere erosi egin zenizkidan. Hori ez da nire errua. Orain hor konpon!!



1. Unitatea - Kilo bat istorio

## 5. ORDIZIAKO ERDI AROKO HIRIBILDUA

